


JARDUEREN MEMORIA  
IDIOMAS VITAL FUNDAZIOA

2020

*Idiomas*

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA



2020 urte zaila izan zen guztiontzat, eta denbora luzez gogoratuko dugu. Covid-19aren ondorioz sortutako osasun krisiak eragin globala izan zuen eta milioika pertsonen bizitza aldatu zuen. Askok pandemiak zuzenean edo zeharka eragindako ondorioak jasan zituzten, baina beste askok bizia galdu zuten. Vital Fundazioen hainbat erabiltzailearen kasua izan zen, eta oroitzapen hunkigarria eskaini nahi diet.

Pandemiaren inpaktuak eragin sakona izan zuen gure fundazioen funtzionamendu normalean. Kulturaren mundua goitik behera gelditu zen, kirol- eta hezkuntza-zentroek murrizketa handiak izan zituzten ordutegiei eta parte-hartzaileen joan-etorriari dagokienez, eta elkarre-munduak, zeinekin estuki lan egiten baitugu, jarduera-geldialdi nabarmena izan zuen.

Denok egin behar izan genion aurre ordura arte ezagutzen ez genuen egoera bati. Horregatik, Vital Fundazioek herritarren beharrei erantzuteko eta Arabako gizarte osoarekin dugun konpromisoa indartzeko ekimenari eutsi genion.

Zehazki, Idiomas Vital Fundazioan, osasun-agintariak agindutako eta irakaskuntza geldiarazi zuen nahitaezko geldialdian zerbitzuak egokitzeko ahaleginak egin genituen. Gure ikasgelak eta audio-laborategia prestatu genituen, eta ikasleen eta irakasleen osasuna babesteko behar diren neurriez hornitu genituen. Era berean, web-orria berritu genuen, egitura eta edukiak gure ikasleen eskaeretara erabat egokitu eta matrikula online egin zedila erraztuz.

Memoria honek zehatz-mehatz jasotzen du zer jarduera egin genuen 2020an, emandako eskolen garapena eta zer neurri berri hartu ziren hizkuntzen irakaskuntza kalitatezkoa eskaintzen jarraitu ahal izateko.



**Jon Urresti García**  
Vital Fundazioen presidentea

## Hizkuntzen irakaskuntza

Idiomas Vital Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua eta soziala da, eta hizkuntzen irakaskuntza finantzatzea, sustatzea eta arlo horretako zerbitzuak ematea du helburu.

1967an sortua, Idiomas Vital Fundazioak berrogeita hamar urte baino gehiago daramatza bere jardura hizkuntzen kalitatezko irakaskuntzan ematen, ingelesa bereziki, eta 14 urtetik beherako gazteei gehienbat.

Gaur egun, hezkuntza-eskaintzak ingelesa ez ezik, Arabako gizarteak gero eta gehiago eskatzen dituen beste hizkuntza batzuen irakaskuntza ere hartzen du barne, hala nola, frantsesa, alemana, txinera eta arabiera.


Ingeleseko klaseak dira oraindik ere ugariak, eta fundazioaren jardunaren ardatz nagusia dira. Hizkuntza horretako hezkuntza-eskaintzak maila guztiak hartzen ditu, eta helduei zein zazpi urtetik aurrerako ikasleei zuzenduta dago.

Alemana edo frantsesa ikasteko eta txineraren edo arabieraren hastapeneko klaseak hartzeko, ikasleek DBHko 1. mailako ikasleak edo hortik gorakoak izan behar dute edo hamabi urte beteta izan.

## Matrikuluak

19-20 ikasturtean, guztira, **1.007 ikasle** matrikulatu dira, batez beste 14,81 ikasle gela bakoitzeko 68 taldetan banatuta


### 19-20 ikasturteko matrikulak



■ 14 urtetik berakoak   
 ■ 14 eta 16 urte bitartekoak   
 ■ 16 eta 18 urte bitartekoak   
 ■ 18 urtetik gorakoak

Ikasleen adinari erreparatuz gero, ikus dezakegu ikasleen erdiak baino gehiagok 14 urte baino gutxiago izan arren, azken ikasturtean zertxobait gora egin duela adin horretatik gorako ikasle kopuruak.

### Ikasle kopuruaren bilakaera




	19-20 ikasturtea	20-21 ikasturtea
14 urtetik berakoak	562	516
14 eta 16 urte bitartekoak	198	199
16 eta 18 urte bitartekoak	137	140
18 urtetik gorakoak	212	152

## Ikastaroak eta hizkuntzak

### Ingelesa

Ingelesa da, maila guztietan, ikasleek gehien eskatzen duten hizkuntza. Horregatik, klaseen eskaintza gainerako hizkuntzetan baino askoz zabalagoa da. Lehen hezkuntzako 2. maila ikasten ari diren ikasleekin egiten da hizkuntza horretarako lehen hurbilketa. Zuzenean sartzen dira **Kinder** izeneko ikastarora. Hurrengo ikastaroa **Hastapena** da, eta 3 maila ditu. Ikasturte honetan ikastaro hauek eman dira:

### Ingeles hastapeneko ikasleak



**Kinder**

Bi talde eta bi eskola ordu astean.


**Hastapena**

A hastapeneko lau talde; B hastapeneko hiru talde eta C hastapeneko hiru talde, bakoitza astean bi eskola-ordukoa.

**Ingeles berezia**

Ingeles ikastaroen eskaintzak ikasleen adinari eta ikasturteari lotuta jarraitzen du. Horregatik, Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurrak zuzenean sartu ziren **1. Berezia** izeneko ingeles ikastarora. Gainerako adin guztietan, **mailakatze-proba bat egin zen** izena aurretiaz emateko unean, ikasle bakoitza zer ikastarotara sartzen den erabaki ahal izateko. Ingeles 1. mailako hiru talde; 2. mailako bost talde; 3. mailako lau talde, 4. mailako bost talde eta 5. mailako bost talde aritu ziren astean 3 eskola-ordutan.


**Ingeles berezia ikastaroko ikasleak**



**Helduentzako ingelese**

Helduentzako ingeleseko eskolei dagokienez, 19-20 ikasturtean zehar astean 3 orduko **bost maila** eskaini ziren. 1. mailan bi talde osatu ziren, 2. mailan 3 talde. 3. mailan ikasle eskaera handiagoa izan zuten eta bost taldetara iritsi ziren; 4. mailan lau talde eta helduentzako ingeleseko 5. eta azken mailan bi gehiago.

**Helduentzako ingeles ikastaroko ikasleak**



**Ingeles komertziala (Vital Fundazioaren beka)**

Aipamen berezia merezi du ingeles komertzialak edo Business English delakoak. Unibertsitate-tituludunentzako eta goi-mailako lanbide-heziketako tituludunentzako ingeles tekniko eta komertziala hobetzeko Vital Fundazioak urtero egiten duen beka deialdiari erantzuten dio Idiomas Vital Fundazioak. Hala, 19-20 ekitaldian 100 orduko ikastaroa eman zitzaion bekadun izan ziren **sei ikasleei**. Beka bakoitzak 650 euro ditu, eta gutxieneko sarrera-maila B1 frogagarria da. Eskolak ordu eta erdikoak izan ziren astean bi egunetan (guztira 3 ordu astean).

**Sancho el Sabio Vital Fundazioko langileentzako ingeles ikastaroak**


Idiomas Vital Fundazioak egiten dituen kolaborazioen artean, nabarmentzekoa da Sancho el Sabio Vital Fundazioko langileen ingeles-ezagutzak hobetzeko egiten dena. 19-20 ekitaldian zehar **ingelesaren hastapeneko** eskolak lau lagunek jaso zituzten, eta beste bostek, berriz, **ingeles aurreratukoak**. Eskolak astean 3 ordukoak izan ziren.

**Beste hizkuntza batzuk**

Idiomas Vital Fundazioak beste hizkuntza komunitario batzuetako ikastaroak ere eskaintzen ditu, hala nola **alemana eta frantsesa**. Ikastaro horiek, ikasturtea bezala, irailtik ekainera bitartean ematen dira, hamabi urtetik gorako ikasleentzat. Ikastaroak astean hiru ordukoak dira. 19-20 ikasturtean aleman maila bi egon ziren eta frantses maila bi.

Idiomas Vital Fundazioak beste hizkuntza batzuk irakasteko eskaerari ere erantzun dio, haien irakaskuntza ez baita ohikoa izan gure probintzian. Irakasle batek **arabierako hastapenetako** eskolak ematen dizkie hamabi urtetik aurrerako ikasleei. 19-20 ikasturtean hizkuntza hori zortzi ikaslek aukeratu zuten eta astean 3 eskola ordu jaso zituzten.

**Beste hizkuntza batzuetako ikasleak**





### +55 urtetik gorakoentzako ikastaroak

Vital Fundazioak hizkuntzak ikasteko programa bat du, 55 urtetik gorakoei eskaintzen diena, eta ikasturtea bezala, irailetik hurrengo urteko ekainera bitartean egiten da. Idiomas Vital Fundazioan egiten dira ikastaroak eta astean 3 ordukoak dira, eta euskara eta ingelesa eskaini dira. 55 urtetik gorako berrogeita bederatzik ikaslek, 9 taldetan banatuta, **ingelesaren** ezagutza hobetu zuten, eta talde batean aritu diren bost ikaslek **euskara** aukeratu zuten.

Jarduera horrekin batera, Idiomas Vital Fundazioak beste hizkuntza batzuen hastapen ikastaroak ere eskaintzen dizkie Vital Fundazioaren +55 programen erabiltzaileei. 2020an 55 lagunek eman zuten izena hastapen ikastaro horietan: 37k ingeleseko klasea jaso zuten, 11k frantsesa aukeratu zuten eta beste 7k euskara aukeratu zuten.

### Beste erakunde batzuetarako ikastaroak

Lehen aldiz, 2019-2020 ikasturte honetan ingeles ikastaro bat eskaini dugu merkataritzarako eta ostalaritzarako, Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresaburuen bidez (AENKOMER). Ikastaroa 2 orduko 9 saiotan egin da, eta 14:15etik 16:15era bitarteko orduategian, 'pilula' gisako prestakuntza jaso dute, beren jarduerak-ordutegitik eratorritako premietara egokituta.



Beste bi prestakuntza ere eskaini ditugu Egibideren bitartez: alde batetik, gaztelera ikastaro trinko bat trukeko ikasle frantsesen talde bati, egunean 4 ordu hiru egunez, 8:30etik 12:30era bitartean; bestetik, ingelesa hobetzeko prestakuntza Egibideko Administrazio eta Zerbitzuetako langileei, urtarriletik ekainera bitarteko astelehenetan, 16 ordu guztira.

### Beste hezkuntza-jarduerak

Idiomas Vital Fundazioak ikasgelak, multimedia-gela, hizkuntza-laboregi digitala, liburuak mailegatzeko zerbitzua duen liburutegia eta ikasketa-gela ditu bere instalazioetan. Ohiko eskolak 18:00etatik 21:00etara ematen dira, astelehenetik ostiralera, eta 17:30etik 20:30era izaten da laboretegi orduategia.

Idiomas Vital Fundazioak eskolak emateaz gain, hezkuntza-jarduerak ugaritu egiten ditu. Horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

Ikasleei aholkuak ematea atzerriko ikastaroei, azterketei, atzerriko egonaldiei, trukeei eta lanei buruz, eta laguntza ematen zaie curriculumak, aurkezpen-gutunak eta lan-elkarriketak prestatzeko.

### Euskaraldiarekin bat

**Euskara ulertzen duten hiztunen artean hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da** Euskaraldia, gizarteko esparru guztietara zabaldua eta denbora aldetik mugatua.



Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuz euskararen erabilera areagotzea da. Fundación Idiomas Vital Fundazioak Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartu zuen 2020an, azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean.

### Pandemia urtean egokitzea eta berritzea

COVID-19ak eragindako pandemiak gure bizitzako ohitura ugari aldatu ditu eta irakaskuntzaren sektorean eragin handia izan du. Fundación Idiomas Vital Fundazioan ematen diren ikastaro eta eskolen funtzionamendu normala aldatu egin da.

Idiomas Vital Fundazioaren taldea zuzenean ikasleekin harremanetan jarri zen, eskolak bertan behera utzita zituen 2019-20 ikasturtearen itxiera nola egingo zen jakinarazteko. Gainerako Vital Fundazioetan bezala, hezkuntza-erakundeak aukera hirukoitza eskaini zien eragindako familiei: jarduerak bertan behera utzi zen epeko kuoten zati proportzionala berreskura zezaketen; zenbateko hori kausa solidario bati eman diezaioketen; edo Idiomas Fundazioa bera hobetzera joan zitezkeen. Guztira 166.290,19 euroa itzuli ziren, eta honela banatu ziren:

COVID-19 ITZULKETAK	KOPURUA
Dohaintzak Idiomas Vital Fundazioari, prestakuntza-jarduerak indartzeko	40.782,66 €
Erabiltzaileei eskudirutan egindako itzulketak	125.328,66 €
Dohaintza Bioarabari, COVID-19ari buruzko ikerketa-proiektuetarako	178,87 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>166.290,19 €</b>

Osasun-agintarien dekretuak eskola-jarduera eten zuen hila-beteetan, erakundeak **webgunea erabat berritu zuen**, egitura eta edukiak guztiz egokituz. Ikasgelak berrantolatu ziren eta eskatutako protokolo eta neurrietara egokitu ziren (materialak, teknikoak eta pertsonalak), hurrengo ikasturtearen hasieran edozein egoerari aurre egin ahal izateko eta, behar izanez gero, irakaskuntza-modalitate desberdinak txandakatzeko (aurrez aurrekoa, online eta mistoa). Horrela, ikasleen adinaren, mailaren eta eskuragarritasunaren arabera, urruneko jarduera akademikoa eskaintzen jarrai zitekeen.

Ikasle ohientzako eta berrientzako **2020-21 ikasturteko online matrikulazioa** erraztu zen, eta erraztasunak eman ziren ikasturteko kuotei aurre egiteko orduan, **bi epetan ordaintzeko** aukera emanaz (irailean eta urrian); hobariak egon ziren ikastetxeko egungo ikasleek **gonbidatuta** iristen ziren ikasleentzat (% 10 ikasle berriarentzat eta zaharrarentzat, betiere biak matrikulatzen baziren), eta % 10eko deskontua gorde zitzaien familia ugarietako kideei. Kuoten zenbatekoa izoztuta geratu zen, eta 2019-2020 ikasturteko berak izan ziren.

Ikasle berrien kasuan, nahitaez aurrez aurrekoa izan behar zuen maila-proba egieko aurretiko hitzordua behar izan zen.

Idiomas Fundazioa webgunearen berrikuntzari esker, prestakuntza eta eduki gehiago eskaini ahal izan ziren **prestakuntza 'Moodle'** baten bidez, eta, horren bidez, irakasleak eta ikasleak hainbat tresna elektronikoren bidez komunikatzen dira elkarren artean. Plataforma horri esker, prestakuntza-dokumentazio gehigarria izango da eskura, baita **ikaskuntza hobetzeko ariketa** praktiko ugari ere. Ariketak era guztietakoak izango dira: testak, ikustekoak, ikus-entzunezkoak, etab



## Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat

Idiomas Vital Fundazioaren irakaskuntza-lana bat dator Nazio Batuen 2030 Agendan zehaztutako Garapen Jasangarrirako Helburuetako (GJH) laugarrenarekin: **Kalitatezko Hezkuntza**. 8. GJH (**Lan duina eta hazkunde ekonomikoa**) eta 17. GJH (**Helburuak lortzeko itunak**) ere partekatzen ditu.

Idiomas Vital Fundazioak berrogeita hamar urte baino gehiago daramatza hizkuntzen kalitateko irakaskuntzan, eta bere azpiegiturak berritzearen eta egokitzearen alde egin du, pertsona guztien etengabeko ikaskuntza bermatzeko



Monseñor Estenaga kalea, 1  
01002 Vitoria-Gasteiz

# Idiomas

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA

[www.fundacionidiomas.eus](http://www.fundacionidiomas.eus)